

Haserraldien ondoko politika

Daniel Innerarity

Katedraduna Filosofia Politikoan eta Sozialean, Ikertzailea "Ikerbasque" Euskal Herriko Unibertsitatean eta Instituto de Gobernanza Democrática (www.globernance.com) delakoaren zuzendaria. Argitaratu berri du La democracia del conocimiento (Paidós).

Politikaren kontzeptua era askotara izan da hartua, aztertua, eta gauzarik estimagarriena izatetik gutxietsienera pasatu da; gutxi batzuen zeregin izatetik, denona bihurtzera eta gero inorena ez izatera; garai batean politika irtenbide izan zen eta orain arazo bihurtu dela dirudi. Historiako une batzuetan lanbiderik preziatuena zen politika, gehiegitxo balioetsia ere bai salbamen-bide bailitzan, ahalmenaren egoitza beldurgarritzat hartua, batzuetan gutxienez lanbide errespetagarri gisa ikusia. Baina, gaur egun garrantzirik gabekotzat jotzen dute askok politika, hutsaltzat, baita ahoa betean erdeinatua ere izaten da maiz gure gaitzik txarrenen iturburua omen delako.

Ziur aski politikak ez zuen mereziko estimua hain goian ipinia izatea eta, agian, baliteke gaur egungo mespretxu horretan zinezkotasun falta egotea gizartearen baitan. Dena dela, argi dago politikagintza gaur egun zertzen den bezala asko hobe daitekeela. Uztar daiteke politikarekiko txerarik eza eta inoiz harengandik espero zitekeen baino exijentzia gehiago aldarrikatzea bateragarriak dira gauza biak, herriak agintariekiko burutzen duen zaintzak, protestek eta eskabide-mugimenduek agerian uzten duten bezala. 15-M bezalako fenomenoek adierazten dute politikaren arloan hoztasuna eta axolagabetasuna ez direla baliokideak.

Gai honek galdera asko sustatzen ditu politikak gaur egun munduan bete dezakeen betebeharraren eta gure demokrazien kalitatearen inguruan. Hasteko, komeni da hutsik ez egitea gure ezinegonaren zentzua interpretatzerakoan. Iraultza-zentzuz ulertu behar den protesta baten aurrean al gaude, edo beste era batean interpretatu behar den matxinada-usaina darion zerbaiten aurrean? Nola uztartzen da desadostasuna eta protesta gaur egungo gizartean? Mesfidantzak demokrazia indartu egiten al du ala ahuldu agian? Globalizazioari eta hedabideen teknologia berriei esker sortu diren espazio publikoen eraldaketa dela eta, premiagabeko bihurtu al dute bitartekotasuna eta ezinezko ordezkariak? Azken batean, krisi edo akitze-une batean al gaude edo gure demokraziak eraldatzeko aukera egoki baten aurrean?

Tentsio demokratikoa

Charles Taylor-ek esan ohi zuen erakundeen eta kalearen arteko tentsioa dela demokrazia. "Ofizial" dei dezakegun politikaren ondotik mundua baldintzatzen duen magma antzeko beste zerbait dago bizirik. Koexistentzia horretatik datozen tentsioei zor diegu, zenbait gauza onuragarriren artean, ikusmen-mugak aberasteko, zuzentzeko edo hedatzeko aukerak zabaltzen zaizkiola sistema politikoari. Ezin dugu aurrerapen politikoak profesionalen gaitasunaren baitan soilik utzi. Politikagintzak burutu dituen aurrerapen asko iturri exogenoetatik etorri ziren: ziur aski lorpenik gehienak ez ziren politikoen burutazioetatik sortu, gizarteko presio eta bultzada zehatz askotatik baizik. Bada gizartean sistema politikoak bere funtzioa betetzeko behar duen energia berezi bat, bere kabuz lortu ezin dituen baliabide batzuk, eta horiek ezarritako ordena oztopatu egiten dute, edota gauzak azpikoz gain jarri batzuetan, baina beti ezarritako aginpide hori baldintzatuz...

Dena dela, "kalea" ezinbestez erakundeak baino hobea dela esatea asko esatea da; badaude kalean ere mugimendu atzerakoiak, presioak eta lobbyak, emozio zentzugabeak, legez kontrako ordezkariak edo murrizak. "Kalea" izan daiteke okerragoa, atzerakoa ere bai. Ez genuke ahaztu behar beste zera hau ere, alegia, mugimendu sozialak gizartea bera bezain anitzak direla, eta gizarteko indarretatik berdin espero daitekeela gauza bat eta berdin guztiz aurkakoa, nola aurrerapenak, hala atzerapenak, ezkerrekoak eta eskuinekoak daude gure artean. Badira gizartearen parte-hartzea eskatzen dutenak, baina benetan komeni zaien indarra bakarrik dute gogoan. Kalean denetik dago, normala den bezala. Ordezkaritza bidezko demokraziaren markoa gainditu nahi dutenak espektro politikoaren bi aldeetan daude: 60. urteetako mugimendu sozialak ezker alderdien irudimenean amestu zutena bera dago 90. urteetako alderdi neoliberalen buruetan. Bat etortze horrek gutxienez pentsarazi egin beharko liguke geroari begira.

Demokrazia tentsio hori eta beste asko onartzen dituen sistema da, uste duelako inork ez duela osoko arrazoirik. Erabaki okerren kalteetatik salbatzen gaituena hauxe da: tentsio horiek beste aktore, muga eta prozedurek orekatuak daudela: badago gobernuak, baina zorionez oposizioa ere bai; inkestek jendeak orain zer nahi duen erakusten digute, baina lidergo politikoa egon daiteke nolabait hain herrikoiak ez diren irizpideen arabera jokatzera lerratuta; badira kontsultatu beharreko gauzak, eta beste zenbaitena egitea debekatua dagoena; administrazioak politikari originalegietatik babesten gaitu eta horiek burokrazien irudimenik eza orekatzen dute; adituek mugatu egiten dute politikari batzuen arinkeria eta hauei esker ez gaude haien tiraniaren azpian; joko-araurik gabe ezingo genuke elkarrekin eztabaidatu, baina eztabaidak berak eramaten gaitu, eta ez gutxitan, horietako arau batzuk berraztertzea. Erakundeen eta kalearen arteko dualismoa kontuan hartzeko moduko oreka horietako

bat da, adibidez, ordezkariak eta parte-hartzea, obediencia eta protesta.

Eta gure demokrazien etsirik nagusiena erakundeen sendotasuna ez, baizik horien ahultasuna balitz iritzi publikoaren apeten aurrean? Zer esan nahi du merkatuak politikoki arautzea, inbertitzaileen erabaki askeen zorigaiztoko kateatzea eragozteak ez bada? Gure arazo nagusia populismoa da, ze honek interes orokorra, bere erantzukizun eta orekaren exigentzia guztiekin, eraikitzea eragozten baitu. Ez da izan eliteak herriarekiko jarri duen urruntasunak gure demokraziak txirotu dituenak, baizik eta, nolabait esatearren, horien arteko gehiegizko hurbiltasunak, uneoroko tentsioetan eta beti epe motzera begira jardun duen politikagintzaren ahuleziak.

Gizarte demokratikoan herri-borondatearen zerbitzuan dago benetako politika, baina borondate hori oso da konplexua, oso interpretatu beharrekoa, hitzetik hortzera aipatzen dugun "herri" horren errealitatea konplexua den bezala. Zerbait begien bistakoa dela esatean, herria aipatzeak ia beti eztabaida blokeatzeko besterik ez du balio. Baina gauzak aztertzen hasi eta berehala hasten dira desadostasunak. Inkestek eta azterketek islatzen dutena al da herria? Ordezkariek ordezkaria? Globalizazioak zeharkatutakoa? Edo interferentziarik gabeko batasun autarkikoa al da herria? Seguru asko horiek guztiek osatzen dute herria; prozedura demokratikoak kasu bakoitzean zertaz edo nortaz ari garen egiaztatze moduak besterik ez dira eta. Hasteko, herria errealitate lausoa da, landu beharreko zerbait; horretarako da ordezkarien lan guztia, eztabaida publikoa eta erakundeetako prozedurak zein finkatzen baitute beren ingurua edo aldatzen, eta erabaki demokratiko bihurtzen

Erakundeek herria demagogikoki aipatzeak babesten gaituzte, herria ordezkari egiten dute eta, neurri berean, berezko aniztasuna biltzen eta borondatearen konplexutasuna azaltzen. Ordezkaritza politikoari esker herri-borondatea eraginkorra da, osatzen duten uneak

integratzen dituen. Komeni da gauza hauek gogoratzea, batez ere oraingo joerak beste norabidean doazela ikustean eta herriaren berezko naturaltasunarekiko benetako liluramendua sumatzen denean, guk protesta egiten duenak beti arrazoi duela onartzeraino, eta parte-hartzea sustatzen duenak ezinbestean demokrazia sendotu egiten duela sentitzeraino.

Hautestontziak eta ametsak

Hain ezaguna den 15-M mugimenduaren gehien aldarrikatutako eslogan batek dio: "gure amets ugariak ez dira zuen hautestontzietan sartzen,". Utopiazko errebindikazio bezala, berekin du ezinezkoaren prestigioa, eta horrek galdera bat saihesten digu, alegia, ea, batzuetan, ametsak batzuentzat haluzinazio propioak diren edo besteentzat amesgaizto. Ez dut ezbaian jarriko hobe daitezkeela hautesteko ditugun aukerak jakina; baina saiatuko naiz gure egoera politikoari buruzko puntu batean atentzioa jartzen: inork ez du, areago politikan, nahi duen guztia lortzen, eta hori da demokraziaren lorpen handienetako bat, hain zuzen ere. ..

Gizarte bat demokratikoki esperientzia hau bere egiten duenean da politikoki heldua, alegia, politikaren esperientzia beti etsigarri dela ohartzen denean eta horrek ez dionean politikoki zorrotz jokatzeko eragozten. Politikagintza ezin da konpromiso-jarreratik apartatu, eta hori da, hain justu, norbere ametsak eta helburuak erabat asetzen ez dituenean ontzat emateko gaitasuna. Ez du politikagintzarako balio, frustrazio horiekin bizitzeko eta norbere mugak errespetatzeko gai ez denak. Esan izan digute honek bihurtzen duela politika arduragabe eta iruzurrezko, baina ohitu egin beharko genuke pentsatzera horixe dela politika osatzen duena.

Gizarte demokratiko batean politika ezin da burutu egoera errealetatik kanpo, logika instituzionaletik at, edo besteak eta horien

artean ados ez daudenak kontuan hartu gabe diseinatutako helburuak erabat bete-betean lortzeko modu bat izan. Politikaren definizioan parte hartu nahi dutenekin lan eginez soilik buru daiteke edozein amets politiko. Hitzarmenek eta itunek agerian uzten dute besteen beharra dugula, agintea errealitate partekatua dela beti. Bizikidetzak demokratikoak aukera ugari eskaintzen ditu, baina mugak ere baditu, eta ez guxi. Hasteko, beste talde edo interes sozialen indarra ikustetik datozen mugak, partida jokatzeko guk adina eskubide dutela aitortzetik.

Horregatik, politikagintzak amore ematea eskatzen du beti. Edozein arazori printzipio-kontu gisa heltzen diona, beti printzipioen hizkera erabiltzen duena, ezin uko eginezkoaren eta borrokaren hizkera erabiltzen duena, ezinbestean frustraziopean biziko da, edo autoritarismoaren atzaparretan eroriko da. Politikak porrot egiten du, talde aurkariak edo lehiakideak beren ustetan alde batera utzi ezinezko helburuak aldarrikatzen dituztenean, edota guztiz bateraezinak eta kontraesandunak direla uste dutenean. Fanatiko guztiek aurkariak gogatzeko politikoa lortzetik urrun daudela uste dute. Beste aldekoen argudioen onargarritasuna ulertzeko gai ez denak, ezin izango du politikoki pentsatu, are gutxiago politikagintzan jardun.

Gure espazio publikoaren kalitate txarraren sintometako bat da logika hau ulertu ez duten taldeen eta pertsonen geroz eta handiagoa den eragina. Eta eten gabe despolitizazio bortitza burutzen dute. Presio populistaren aurrez aurreko demokrazien ahultasuna zurruntasunaren gotorleku den Tea Party bezalako fenomenoetan ageri da. Ez dut mugimendu iparramerikar horri begira bakarrik hitz egiten, gure demokrazietan hedatuagoa dagoen fenomenoak kontuan hartuz baizik.. Esan liteke, gehiegikerian erori gabe. denok dugula geure Tea Party propioa. Alderdi politikoak, elizak, sindikatuak eta hedabideak gainezka daude beren inguruan sortzen diren mugimenduekin, zein

ohiko jarduerak baldintzatzen baitituzte edo horien ordezkotasuna nabarmenki auzipean jartzen

Guztiak ari dira moderatuen aurkako jazarpena jasaten, hau da, beren aldekoengandik egiten den markatze gogorra nozitzen, ez dadin etsaiekin amore eman ezta horiekin itunik gauzatu ere. Zentzu horretan, horrelako Tea Party baten indarra guztiz ideologizatua da eta, aldi berean, desegituratua beste botere ideologizatu batean itsatsia, indar ofizial batean baina ahulduan, bizkarroi bizi dena. Eta botere ofizial eta ahuldu horri leialtasun osoa eskatzen zaio kontrarioerekiko itunik eta ordainik gauzatu gabe lortu behar diren helburu politikoekin, itunaren irudia edo tratua balioa gutxietsiz. Esentzien jagoleak dira, eta borrokan dihardute ez zuzenean etsaien aurka, eta kideen zelatan egoten dira zain-zain, etsairik okerrena etxekoa dela esan ohi dena betez. Pentsa dezagun zenbat eta zenbat adierazpen harro egiten diren, edo berrikuntza ideologiko askotan gaur egun "konplexurik gabe" jardun behar dela esateak zer adierazten duen.

Mugimendu hauen ezaugarriarik despolitizatzailen artean erantzukizunaren zentzurik eza da aipagarria, itunetarako eta nork bere buruari mugak jartzeko joerarik eza; mugimendu hauek muin ideologikoa zaintzen dute (familia, nazioa, ongizatea, merkatua, baloreak). Eten gabe arriskuan ikusten dituzte balore horiek, eta errezelarik handienak beren alderdikideengan jartzen dituzte; bereziki ahulak dira populismoaren indarren aurrean, eta emozio-karga handia azaltzen dute beti. Batez ere, ertzeko baldintzapen ideologiko hauek burutzeko jarrera erakusten dute "gai bakar baten inguruko mugimenduak dira" (espektro ideologikoaren bi ertzetan eta gai desberdinen inguruan: natura, emakumea, nazioa, abortua...). Hauei hori gertatzen zaie batez ere gai bakar batek kezkatzen dituelako, eta gainontzekoek ia deusik ez, gauza garrantzitsu bakar hori bidera daitekeen ala ez aztertu gabe, urgentziazko edozein egutegi edo

osaketarako posibilitateak ikusi gabe, aurrera egiteko joera erakusten dute.

Nolabaiteko ahultasun instituzional batek zenbait eragile sozial eta teknologikoekin bat eginda desegituratu egin dute protestaren eta eskabideen espazioa zein merkatuak bezain desarautua baitago. Kontu honetan rol erabakigarria izan dute sare sozialek. Eta horiek mobilizazio, komunikazio eta bat-batekotasun-indar handia azaldu dute, baina mundu hori mundu desegituratua da, eta bakoitza ondoen iruditzen zaionarekin biltzen da. Horregatik, gero eta gutxiago dira sare sozialak ze desberdinekiko konfrontazioak lekua uzten zaio bere antzekoarekin haserrea azaltzeari. Bizi den emozio hori da sumindura berdina elkarrekin komunikatuz elikatzen da.

Ziur aski horrek esaten digu berriro gizarte desegituratuetan egin beharreko politikan pentsatu behar dugula, Gatazka horiek ez dute aspaldiko borroka sozialaren funtzio antolatzailea eta hiritarren eskabideak ez dute beren lekua erraz aurkitzen ordezkatzeko sindikalean edo politikoan. Ze ez gaude oraingoan oreka demokratikoaren logikan, anti-politikarenean baizik. Aldaketarako autoritateak badaude, eta horien asmoa ez da botere ofiziala orekatzea neutralizatzea baino..

Politikak beti diziplinatu izan ditu gure ametsak, zehaztu egin ditu logika politiko batean eta ekintza-programa bihurtu. Horregatik, politika ahula denean, etorkizun kolektiboaren itxaropen-neurriak asko areagotzen dira eta ahulago bihurtzen gara adimengabetasunaren aurrean. Zer egiten dugu politikaren bidez lortzeko ilusioa pizten digun horrekin guztiarekin? Amore eman behar ote dugu bizikidetza soziala hain etsigarria ikusita ez duelako zentzurik idealak formulatzeak eta horiek lortzeko borrokatzeak? Bereizketa bat egiteaz ari gara, ze hori gabe ez baitago bizikidetza demokratikorik?. Gure nahiak dira hautestontzietan kabitzen direnak, gero datorrena - gure ametsak besteen amesgaizto bihurtu nahi ez

badugu -, joko demokratikoa da eta horrek mugatu egiten ditu gure desioak eta askotan zapuztu, baina besteeen ekarpenekin aberastu ere bai. Norbaitek bere desio guztiak asetzea lortuko balu, ez litzateke gure gizatasunaren partaide izango eta are gutxiago gure politiko izatearena.

Mesfidantza demokratikoa

Paradoxikoa da demokrazia munduan gehien zabaldua dagoenean, herritarrek demokrazia gehien baloratua dutenean eta beste irtenbide-eredurik ez dagoenean, ahultasunaren sintomak eta disfuntzio iraunkorrak ikustea. Inkestek azaltzen dute handituz doala desilusia eta hori batzuek erabateko axolagabekeriatzat jotzen dute, oker nire ustez. Dena dela, zorrotzago aztertu beharko genuke gai hori. Ez gaude politikaren heriotzaren aurrean, beste era batera antolatza eta gauzatza behartzen gaituen eraldaketa baten erdian baizik.

Ez genuke mesfidantza iraganeko kategoriekin ulertu behar eta desilusio hori interpretatu, XX. mendearen hasieran demokraziak era dramatikoan ahuldu zuen anti-parlamentarismoaren antzekoa balitz bezala. Ez gaude demokraziaren krisi baten atarian, finkatzeko etapa berri batean baizik. Desilusio horrek ez du subertsibotik ezer, guztiz bateragarria da ordena demokratikoarekin. Oker dago sentimendu horretan desilusio guztiz demokratikoa ez den beste zerbait ikusten duena. Eta ez dugu ahaztu behar erabateko boterearekiko mesfidantza gure instituzio politikoaren sorburutik ageri dela munduan. Demokrazia konfiantza mugatuarekin eta baliogabe zitekeen sistema gisa eratu zen betidanik: Demokrazia mesfidantza erakundetzen duen erregimena da. Gizarte despolitizatua dela kexatzen garenean, ez ote da izango ezagutu genuen politikarien lidergo hura herritarragoa izatera iritsi ez delako, hau da, lidergo

enfatikoa eta hierarkikoa zelako, eta berezko demokrazia-maila eskasa erakusten zuelako? .

Gaur egungo mesfidantza heroikoa izateari utzi dion eta aurreko dramarik gabe bizi den gizarte baten eraldaketa logikoan du oinarria. Mesfidantza eta axolagabekeria ez dira baliokideak; nolabaiteko desilusio "ahula" da, goibelaldia gehiago eragiten duena urruntasuna baino. Gauza bat da demokraziak ez duela soberako berotasunik sustatzen, eta beste bat guztiz desberdina, desilusio horrek gure biziera politikoarekiko atxikimendurik eza adierazten duela esatea. Adibidez, egunkariak edo alderdi politikoak guri gehiegi ez gustatzeak ez du esan nahi haiek ezabatzea onartuko genukeenik. Politikaren sakratutasuna kentzeak ez du esan nahi guztia berdin digunik. Gertatzen da politikagintzari grinarik eta berotasunik gabeko txera diogula. Ez da egia jendeak politikarekiko ardura galdu duela esatea; politikarekiko lehia-sentimendu bat hedatu den gizartean bizi gara; hobeto hezita gaude eta denok ikusten dugu gure burua gorabehera publikoei buruz iritzia emateko gai garela eta, horregatik, nekezago jasaten dugu gaitasun hori guri lapurtzea. Eta ikerketek zera erakusten dute, heziketa zenbat eta hobea izan, orduan eta txikiagoa dela erakundeekiko eta liderrenganako konfiantza.

Politikagintzari buruz iritzia emateko modu bat interesaren edo parte-hartzearen intentsitatea neurtzea da. Era guztietako aniztasun politikoa errespetatzen badugu, zergatik ez onartu, badagoela aniztasun bat parte-hartzearen eta konpromiso politikoaren mailan ere? Zergatik inplikatu behar dute guztiek era berean gai politikoetan, eta nork ezarriko du inplikazioaren maila desiragarria? Politikarekiko arreta gehiago edo gutxiago azalduz interpretatu behar diren seinaleak igortzen dituzte herritarrek . Axolarik eza ere bada iritzia emateko edo erabakitzeko modu errespetagarri bat, eta ez derrigorrez konpromiso politikoaren gabezia soilik.

Komeni da puntu honetan hutsik ez egitea, gure gizartea ulertu nahi badugu. Despolitizazio-bidean baino gehiago, politikaren sakratutasuna galtzeko norabidean ari gara sartzen. Elkarren mendeko eta heterohierarkikoki eratutako gizartearen joera politikaren osotasuna eta erabatekotasuna apurtzea da. Batzuek itsumustuan axolagabekeriatzat jotzen dutena beste zera honetatik eratortzen da, alegia, subjektibotasunaren alde guztien absortzioa lortu nahi lukeenarentzako lekurik ez dagoen gizarte batean bizi garela. Egia da gaur egun politikak ez dituela azaleko grinak besterik pizten, baina horrek ez du esan nahi politikari luzatzen dizkiogun eskabideak desagertu direnik. Oso bestelakoa da kontua. Politikarako arreta gutxi azaltzen dutenak berak, beti daude haren eskutik etor daitezkeen abantailen esperoan, eta ez dute zaintza lasaitzen beren exijentziak betetzea erreklamatzean. Baina nahi lituzketen gauzen itxaropena ez da politika orohartzaile eta erabatekoaren marko heroikoan sartzen.

Horregatik uler dezakegu mesfidantza ez dela legezkotasunaren kontrakoa, herritarren aldetik gauzak kudeatzeko era sotil bat dela baizik. Herrikoaren arretarik eza erabat funtzionala izan daiteke. Areago, batzuen ustez, apatia apur batek ez dio politikari kalterik egiten. Demokraziak gai dira ezaxola-maila handia jasateko: errealitatean normalean politikarekiko hoztasuna erakusten dutenen bat-bateko interesak esan nahi du, zerbait ez doala ondo. Normaltasunezko demokraziak berekin dakar maila bateko asperra, eta asaldura politikoak ez du askotan ezer onik iragartzen.

Asko aipatu da gaur egungo gizarteek sakratutasun-transferentzia bat egin dutela errotutako erlijioetatik proiektu politikoetara. Osa liteke koadro hau esanez erlijioetatik politikaranzko sakratutasun-transferentzia burutu ondoren, garai berri bat etorri dela, eta giro horretan politikaren ohikok ez diren formak sagaratu direla, "alter-politika" nolabait esateko. Bitxia ere bada itxaropen sozialen lerratze

hori zeinen bidez ohiko politikatik espero genuena lortu ez dugunetik, uste dugula politikagintza ez ohikoaren eskutik lortuko dugula gizarte despolitizatu horretan itxura batean ukitu gabe zeuden indar berri eta garbiak suspertuz, dena delako izena ematen zaielarik ere: gizarte zibila, herri aktiboa, mugimendu sozial edo "kontra-demokrazia", Pierre Rosanvallon-en hitzak erabiltzearren.

Nire ustez, garai bateko politikatik lortzea espero zutena bera orain ez-politikatik espero dutenek frogatzen dute ez dituztela gertatu diren eraldaketa sozialak ulertu. Gaur egun gizarte post-heroiko dei dezakegun giroan bizi gara. Orain gero eta oihartzun gutxiago dute deialdi epikoek eta erresistentziarako pentsamoldeek. Gaur egun politika garai batean zena ez bada, ezta ez-politika ere. Politikagintza berrietan ere (protesta, parte-hartzea, mugimendu sozialak...), ez dugu politika instituzionalean desegin den heroismorik aurkituko. "Alter-heroismoa" babes-etxe nostalgikoa da errealitatean existitzen den politikan ilusioa galdu dutenentzat, baina, edozein nostalgiatan gertatzen den bezala hondakin da hori.

Haserrea ez da nahikoa

Intentsitate apaleko herritartasuna duen gizarte batean edozerk jasotzen du harrera ona: politikagintzari begira lauhazkako txerarik ezak, eztabaida planoek, benetakoak ez diren argudioek. Arrazoibide hori idatz duena aldi berean erresistentzia frantsesaren borrokalari eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala idatzi zuenetako bat izanik, ezinezko bihurtzen da horri kontra egitea edo haren iritziak ñabartzea sistemaren mertzenario itxura eman nahi ez bada .

Et pourtant... Haserrea gizalegezko bertutea da, beharrezkoa baina murrizta. Sentitzen dut Hessel-engatik, baina nik gauzak beste era batera ikusten ditut eta oinarrizko arazoa, beste nonbait. Hasteko, ez dugu haserrea soberako zerbait ikusten, guztiz alderantziz baizik.

Nonahi ageri zaigu haserre, sumina; aski da zapping pixka bat egitea eta haserre dagoen jendea ikusteko (bereziki telebista-kanal eskuin muturrekoetan. Haserre daude, adibidez, ongizate-maila urritzen ari dela esaten dutenak, baina baita gauzak urrutiegi doazela diotenak, gure artean atzerritar gehiegi daudela esaten dutenak, mota guztietako fanatikoak, giroa kudeatu nahi dutenek beldurra sartu diotenak ere bai.

Gure gizartean asko dira "aurka" daudenak, baina gutxi gauza jakin baten "alde" ageri direnak. Gaur egun energia negatiboak dira jendea mugiarazten dutena: sumindura, arazeria eta biktimazioa. Arazoa da nola heltzen diogun egora horri. Pierre Rosanvallon-ek gaurko giro horri "politika negatiboaren aroa" deitu zion. Gizartean arbuiatzen dutenek ez dute jokatzeko garai bateko matxino edo disidenteen antzera, ze horien jarrerak ez du inolako etorkizun desiragarririk eskaintzen, inongo ekintza-programarik erakusten. Panorama honetan arazoa da nola bereizi haserre justuaren sumindura atzerakoia, eta haserre eraginkortasun eraldatzailea duten mugimenduen eskuetan nola jarri..

Eta kexuzko arnegu horiek entzuten dituen jendea irtenbidea ez, baizik eta arazoaren zati balitz? Jendeari haserretzeko eskatzea arrazoi ematea da orain arte bezala jarrai dezaten haserre huts eta konformismo antzuan. Iraultzailea populismoa eraginkortasunez apurtzea izango litzateke, gure atzerapen txarrenen sorburuan dauden berehalakotasuna eta losintxa haustea. Gainera deialdi horiek arazo konplexuetarako azalpen sinpleak aldarrikatzen segitzen dute. Haserre kalterik gabeko purrustada bihurtzen da eta eragin gabea, sortu dituen gertaera jasanezinak aldatzeko orduan. Gainera, arazoa areagotu egiten da mezuak arazoizko analisiren bat azaltzen duenean; adibidez, zergatik gertatzen dena gertatzen den, arazoak ondo identifikatzen diren errudunak aurkitzearekin konforme geratu ordez, eta nolabaiteko etorkizuna proposatzen duen.

Eta haserreak aseta dauden edo aurka dauzkagun eta sumintzen gaituzten egoeraren erantzuleen onerako jardungo balu? Ziur aski azterketa egokiak formulatzeko eta hobekuntza zenbait pazientziaz sartzen saiatzeko lana errealitatearen eraldatzaileagoak izatea, protesta suminezko eztanda horiek baino. Aipa daiteke haserrearen funtzio kontserbatzailea ere, sistemak finkatzen duena, ihes balbulek noizbehinkako parrandak bezala gauzak dauden bezala uzteko hain funtzionalak baitira. Mundu hoberantz batera joateko beharrezkoa dugun beste plus hori ez da gure goibelaren gehiegizko drama azaltzea; hasteko, teoria bat behar dugu lagunduko digun munduan zer gertatzen ari den ulertzen lagunduko diguna, horren konplexutasuna ezkutatzeko tentazio erosoan erori gabe. Hortik hasita bakarrik formula daitezke programak, proiektuak edo lidergoak eta horiek esku hartze sozial eraginkorra burutzen lagunduko digute, parte hartze koherentea eta erakargarria sumindu gabe dagoen gehiengoarentzat.

Puri-purian jarri dira besteei politikaren arloan zerbait egiteko (sumintzeko edo konprometizeko aholkatzen dieten idazkiak Nik, ordea,. gainontzekoek zer egin behar duten inoiz jakin ez badut ere, beste slogan hau proposatuko nuke: Uler ezazue! Bi zentzutan aipatzen dut ulertze hitza: alde batetik, ulertzea munduaren konplexutasunaz jabetzea da eta gure egoera politikoak inposatzen dizkigun estutzeak. Eta beste aldetik, ulertzea da ulerbera izatea da zailtasun horien aurrean. Bi jarrera hauetatik - politikaren zailtasunari dagokion begirunea eta zeregin horretan emanda bizi direnekiko onginahia - abiatzen ez diren kritikak oro ez dira beharko luketen bezain erradikalak izango haien hutsune argiei arrazoi egokiekin aurre egiteko.

BIBLIOGRAFIA

Bardhan, Pranab (1999), Democrazy and Development: A Complex Relationship”, Ian Shapiro /Casiano Hacker-Cordón.

Calhoun, Craig (1998), "Populist politics, Communications Media and Large Sclae Societal Integration”, Sociological Theory 62, 219-241.

Dogan, Mattei (2005) (ed), Political Mistrut and Discrediting of Oliticians, Leidn / Boston: Brill.

Lipovstky, Gilles (2006). La societ  de d ception, Textuel: Paris

Luhman, Niklas (1993), Legitimation durch Verfahren, Luchterhand: Frankfurt.

Rosanvallon, Pierre (2006), La contre-d mocratie. La politique   l’age de la d fiance, Seuil: Paris . . .